# INKESTARAKO GALDERA

Deskribapena: Kike herriko kale batean ibiltzen ari da.

Kike: Ikerketa soziolinguistiko hau burutzeko teknologiarik aurreratuena! Galdera bat eta erantzuteko boluntarioak behar ditugu.

Deskribapena: 0tik 10erako eskala duen euskarri mugikor baten ondoan gelditzen da.

Kike: Hara! Hementxe dugu teknologia! Zerotik hamarrerako eskala bat eta honako hau galdera: Munduan zazpi mila hizkuntza daude gehien hitz egiten dena, hamarrean dagoena txinera da eta, zeroan legoke, bart azken hiztuna galdu zuen hizkuntza. Hori kontuan izanik, zerotik hamarrerako eskala honetan eta zazpi mila hizkuntza horien artean, hiztun kopuruaren arabera, non dago euskara? Ba, zuek pentsatzen duzuen bitartean, gu boluntarioen bila goaz.

Deskribapena: Kikek eskala hartzen du eta ibiltzen hasten da.